



danbolin²⁵

2025 urbarrila

267^{ak.}



**San Juan egoitza
herriko bost mutil gazteren
begietatik**





675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



JAVIER ALBERDI
Aseguru agente eskusiboa

Gesalaga, 18 behe 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

txoko taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



Ekain berri kafetegia

Ordutegia

Aste barruan
06:30/13:30
16:30/20:30

Asteburutan
06:30/14:30
Arratsaldez itxita

By NADIA

Tlf: 943 536 314
ZESTOA

ONER
ZINGI
943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola

Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1

Tel. 943 148 524

20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



merendero
Iraeta-Zestoa (Gipuzkoa)
merenderobelkoretza@gmail.com

URRIA						
1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA


AZAROA						
1	2	3				
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA

ABENDUA						
				1		
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



AV ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUA

Gesalaga kalea, 22 behe 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



IRAETA JATETXEA

Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola

Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutxabank



kutxi eta
pentsuak



www.laiakdenda.com
tfnua: 943148134

laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



943 897 276



*Eizagirre
Okindegia*

Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269

Itzulpen eta
argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino
askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



**UROLA
ITURGINTZA**

665 49 07 73

KOIOOTE

foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Aranburu

Landetxea
eta
jaketxea

943 148 005

MUSIKA eta Zaintza BIZITZEN ERDIGUNEAN

Gizakia autonomia gutxien duen animalia dela esango nuke, batez ere, bizitzako hasierako eta bukaerako etapatan. Zaintza da gure biziraupenaren eta gizartearen oinarria, baina kontrara, ez erdigunea. Zaintza lanak, luzaroan, emakumeenak izan baitira eta gizarte kapitalista eta patriarkalak sektore feminizatuak bigarren mailan kokatzen ditu. Pixkanaka, ordea, egoera ari da aldatzen. Familia barruko lanak partekatze ahaleginean gabiltza gizon-emakumeok, eta etxetik kanpora ere hasia da bidea. Horren adibide dira Peru, Aitor, Iker, Unai eta Ander. Zaintza lanei lotutako ikasketak egiteko hautua egin dute eta San Juan egoitzan ari dira lanean. Beraiek gustura dabilta, asko eman zein jasotzen dutela diote, baina askotan gogorarazten diete inguruan gutxietsitako lana dela: "Ze, zaharren ipurdiak garbitzera?".

Ipurdia garbitzen zidateneko oroitzapen garbirik ez dut, baina bai garai hartako soinu bandarena: Tximeleta mendian, Astoa ikusi nuen, Plisti plasta, Ran roberran... Xirula Mirularekin haziak gara gure belaunaldikoak. Kantu horiek entzutean Imanol Urbietaren izena datorkigu; berriro ere emakumea ezkutuan. Urbietaren ez baitzen bakarrik aritu, Kontxi Aizarna izan zuen bidelagun; musika eta euskara uztartuta material pedagogikoa sortu eta zabaldu zuten Euskal Herri osoan zehar. Argi zuten musikak, baita dantzak ere, haurren beharrei erantzuten dietela. Zoritxarrez, ordea, zaintza lanak bezalaxe, ez daude erdigunean.

Nik argi dut onura fisikoak eta psikologikoak dakartzatela; hezkuntza sistemak noizbait emango al die dagokien lekua? Gero eta gizarte indibidualista honetan harremanetarako zubi ere badira. Pentzaten jarri eta nik musika eta dantzaren aitzakian ezagutu dut San Joan egoitza. Haur nintzela txirula jotzera eta abestera joaten ginen, eta aurrerago herriko bandarekin erregeei laguntzera Gabonetan. Santa Eskean ere joan izan gara eta Itxaropenakoekin ere bai dantzara, nola ez.

Mutil gazteek argi dute ipurdia garbitu baino askoz gehiago egiten dutela. Badakit zaintza-lanak laztzak direla zenbait momentutan, baina nik San Joan egoitza jaia eta pozarekin lotzen dut. Azkenengoz Jose Mari Urbietaren *Terrible* zena elkarriketatzen joan nintzen eta han bukatu nuen erronmerian! Oker ez banago Josebak asteazkenero ateratzen du soinua, eta han aritu ginen Jose Mari eta biok koilararekin botila joaz erritmoa markatzen.

Zaintzaren oinarri dira ongi-izate fisiko eta mentala, eta horretan musikak asko du laguntzeko. Zainduak zein zainzaileak izatea dagokigu bizitzan, eta musikaren eskutik bada, askoz ere errazagoa eta goxoagoa izango da hartu-emaña.

amaiur aristi arregi



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN
HARTZEN ALDIZKARIAN
ADIERAZITAKO ESANEN ETA
IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argibarra: danbolin zulo
elkarrean. KULTUR Etxea. AXUN
ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA
(GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS
Danbolin: naiara exposito,
amaiur aristi, urko canseco,
sara matsucani, peru garcia, jone
bergara, itsaso walino eta ohiana
calparsoro

Kolaborabaita/suzentabaita taldea:
nagore telleria, jon argano,
fernando arzallus,
onintza irureta, mireia orbegozo,
eider arrizabalaga, maider arregi,
nerea odrizola, itsaso
zubiria eta mikel irure
Diseinua eta markezak:

eneko aristi
Inprimategia: gertu (oñati).
lege gordailua: ss-1108/2000
ISBN: 1576-9429



BASERRIKO KALEKUMEAK

Fábrica de Hilados y Tejidos de Vergara. 1846an irekia, baina lau mende lehenagotik ziren famatuak hango oihaileak. San Antonio auzoan jarri zuten fabrika, orain nire lantokia den eskolatik gertu. Mahoizko uniforme eta lan-jantziak egiten zituzten. Indiatik ekartzen zituzten oihaileak, eta indigo pigmentu famatuaz tindatzen zituzten. Deba ibaia ere urdinduta jaisten omen zen San Antoniotik. Arropen kolore eta kalitateari esker, markak nazioarteko fama lortu zuen, eta, jatorrizko fabrika haren babesean, ehungintzako beste lantegi mordoxka bat ireki zuten, tartean Tavex ospetsua. Harrotasun puntu batekin kontatu didate lankideek nola mahoi urdinari Bergarako *azula* esaten zioten. 1970eko hamarkadan, jeansen moda iristearekin, Tavex enpresa *prêt-à-porter* sektorean inbertitzen hasi zen, baita Levis-Strauss etxeari indigo denim famatua hornitzen ere! Tavex burtsan sartu eta Europako merkatuko lider izan zen. Baina deslokalizazioa ez da gaurko *inbentoa*, orduan ere bazen; eta Bergarako urdinak Bergarakoa izateari utzi zion. Tavexen Europako egoitza San Antonio auzoan dago oraindik, baina jarduera industrialaren arrastorik ez da.

Markel: Nik ez dakit Bergaran lanik topatuko duzun. Beltz samarra ikusten dut zure etorkizuna han. Hala ere, Bergaratik bertatik bertara daukazu Arrasate, eta han Ternua Group, Euskal Herriko ikur bat. Mendiko zapatilak modan jarri dira, eta han bai; han etorkizun aukera argia ikusten dut zuretzat. Salomon eta New

Balance bezalako markekin lehiatuko duen Ternua zapatila, ez litzateke ahuntzaren gauerdiko eztula! Saia zaitezke. Bestela, onena Lixarritxera itzuli eta baserriko lanak egiten ikastea izango dugu. Zu baratza arduratu zaitezke, tio *Josetxok* eta *Luixmarrik* erakutsiko dizute lurra goldeaz lantzen, patata noiz erein, tomateak noiz aldatu... Pazientzia pixka batekin, hartuko diozu. Nik gobernatuko ditut oilo-jende eta aziendak. Txerriak ez ditugu ipiniko, ez zaizkit gus-tatzen. Behi eta zezenen zalea naiz ni. A, eta ahariren bat izaten badugu, *Txitxirripe* izena jarriko diogu! Zergatik jakin nahi duenak galdetu diezadala parean aplikatzen garenean, dagoeneko nahikoa luzatu nahiz eta. Beste Markel batentzat enbidoa, orain. Markel Cabanillas: zu ere kan-

poan bizi zara, Bartzelonan. Baina ikusten al duzu zure burua etorkizunean Txapein? Zuen amama Agustinak ere ondo asko sartuko gintuzke arrastean.

aitana etxeberrira

pintada. **IRAETAKO AUZO LOKAL BERRIA.** Agian jakingo duzuen moduan, Iraetako elkarte gastronomiko edo *soziedade* gaineko lokalari txukundu bat eman eta erabilera anitzeko auzo lokal berria dugu auzoan, besteak beste, neguko egun hotzetan haurren txoko bezala erabiliko dena. Lehen genituen jostailuak zaharkitu, apurtu eta hondatu egin zaizkigunez, zuri irakurle, zera esan nahi genizuke: etxean botatzeko jostailu, ipuin edo haur altzaririk izango bazenute, guk gustu handiz jasoko genituzkeela. Kasu horretan, idatziezaguzue gure helbide elektronikora (iraetadenonartean gmail.com) eta eman iezazozue traba eginez dituzuen objektu horiei bigarren bizi-tza bat gure auzoko gaztetxoan aisia alaituz.

Iraetako haurren guragoak

ZERBITZARI BATEAN BEGIEZATIK

Bi urte pasatxo igaro dira herrian zerbitzari lanetan hasi nintzenetik, eta etapa hori amaitu berri dut. Gaur egun Hezkuntzan nabil, ordezko irakasle, baina tabernan bizitako esperientziaren inguruan hausnarrarazi nahiko nuke.

Lanean hasi eta aste gutxira ohartu nintzen zerbitzari izateak nolako giza trebetasuna eskatzen duen: pazientzia, entzumen aktiboa eta elkarlana ezinbestekoak dira. Barraren beste aldean egotea ez da soilik kafeak edo pintxoak ateratzea: jendearekin lan egitea eta askotariko egoerak kudeatzen ikastea ere bada.

Eta hor dago errealitate gazi-gozoa. Zoritxarrez, askotan, zerbitzari lana gutxietsi egiten da. Esango nuke orokorra dela lanbidearekiko errespetu falta; nik neuk behintzat oso iruzkin deserosoak jasan izan ditut. Etorri zaizkit bezeroak, agian euren eguneroko presaren edo frustrazioaren ondorioz, tonu desegokian hizketan. Esaldi batzuk, nahiz eta lehen entzunaldian hutsalak diruditen, oso mingarriak izan daitezke egunero jasotzen badira: adibidez, “kamarero honek fundamentu falta ikaragarria zeukak” edo “berria ematen duk” eta antzekoak. Zer esanik ez “duela bost minutu eskatu dizkizut kalamareak!” moduko esaldien inguruan. Horrelakoak, tonu zakarrez jaurtita, gehiegitan entzuten dira barraren kanpoko aldetik.

Azken batean, egoera horiek bezeroa baino “gutxiago” zarelaren sentiarazten dizute. Batzuetan, badirudi gutxi axola zaiela nor zaren eta zer egiten duzun, eta horrelako jarrekek lana ikaragarri zailtzen dute. Askotan, lan giroa jasan ezin bihurtzen da.

Lan honetan aritzeak, hain zuzen ere, garbi erakutsi dit errespetua dela funtsa. Hurrengoan, kafetegira edo tabernara zoazenean, hartu minutu bat zerbitzariari “eskerrik asko” esateko, edo irribarrez hitz egiteko, ekintza horrek eragin handia izan baitezake haren egunerokoan.

PANTAILAREN ERABILERAK KEZKATZEN GAITU

Haur, gazte eta nerabeek gero eta gehiago erabiltzen dituzte pantailak. Ordenagailuak, tabletak zein mugikorrak gaztetxoaren egunerokoaren parte bilakatu dira. Azken urteotan nabarmen egin du erabilera gora txikien artean.

Nire esparruan esaterako, hots, hezkuntza arloan, handitzen ari da kezka. Zenbat eta gazteago, orduan eta kaltegarriagoa da pantailen erabilera

gelan, umeen garapen leihoak ez direlako egoki aprobetxatzen. Gaitasunak garatzeko hiru alderdi landu behar dira: fisikoa, mentala eta emozionala. Idazmena eta irakurmena indartzeko, keinu fisikoa (eskuz idaztea) ezinbestekoa da: horregatik, komenigarria izango litzateke gure umeen eskoletan eskuz idaztea, ahalik eta gehien.

Horretaz gain, Optometriaren Erakundeak dioenez, pantaila batean irakurtzeak baliabide kognitibo gehiago eskatzen ditu paperean baino; horregatik, informazioa ulertzeko, barneratzeko eta asimilatzeke zailtasun gehiago daude pantaila erabiliz papera erabilia baino. Hezkuntzarako faktore kritikoa da hori. Lehen Hezkuntzan bitartean dena da ikasleak hizkuntza bere alor guztietan menderatzea eta matematikako oinarriko kontzeptuak bereganatzea, eta jakin badakigu pantailak ez direla euskarri egokienak alor horiek lantzeko. Ikerketek argi erakusten dute eskuz idazteak eta euskarria liburuak izateak abantaila dezente gehiago duela pantailen aldean, zehazki, memorian, arretan, pentsamendu abstraktuan eta motibazioan. Plataforma digitalak ez dute bilatzen ikaslearen barne motibazioa sustatzea, baizik saritze bat, eta hori arriskutsua da. Adibidez, ekuazio bat ondo egiten baduzu, zure hiri birtualean baratzeko bat jar dezakezu. Hizkuntza gaitasunetan eta irakurmenean (irakurtzen den hori ulertzeko gaitasunean) maila galtzen ari dira euskal ikasleak, azken urteetako Pisa eta Pirls azterketek erakutsi dutenez. Neurriak hartzeko garaia iritsi da; ikastetxeen eta instituzioen ardura da, baita gu guztion ardura ere.



nerrea linazagoro

enaut pozo



MALÉN AYESAK ZILARREZKO DOMINA LORTU DU EUSKAL SELEKZIOAREKIN

Espainiako CESA Eskubaloi Txapelketan parte hartu du infantil nesken kategorian Malen Ayesa zestoarrak, Zumaiako Pulpoko jokalaria. Infantil neska Kopan lehiatu dira, eta finalera iristea lortu dute. Finalean lau gol egin zituen zestoarrak, baina Valentziako selekzioaren aurka garaipena eskuratzea ez zen posible izan. Hala ere, bigarren postua lortu eta zilarrezko domina eskuratu dute.



KOBAZ KOBako ENTRENAMENDUA EGIN ZUTEN 34 ZESTOARREK

Kobaz Koba Trail lasterketan zestoarren parte hartzea urtez urte hasten doa. Hori da antolatzaileen nahia ere eta horren harira entrenamenduak antolatzen hasi ziren iaz zestoarrentzat. Saio hauetan geldialdiak egiten dituzte eta parte hartzaileei lasterketako erritmoen inguruko informazioa hartzeko balio izaten die. Aurten 91 zestoarrek eman dute Kobaz Koba Taril lasterketan izena eta hauetatik 34 lagunek urtarrilaren 15ean entrenamendua egin zuten. Agiro Mendi Klubeko antolatzaileen esanetan "giro onean" egin zuten eta "oso gustura" daude parte hartzaile zestoarren kopurua gora egiten ari delako.



ARROABEKO SAN ISIDRO KALEAREN ERABILERARI BURUZKO BIGARREN BOZKETA EGINGO DA

Urtarrilaren 23an Arroabeko herritarrek San Isidro kalea oinezkoentzako bihurtzeari buruzko lehen bozketa egin zuten. Udalak proposatutako hiru aukeretatik bik puntu kopuru bera lortu zuten. Ondorioz, otsailaren 4an bigarren bozketa egitea erabaki zen. Bertaratu ezin dutenentzat Txara dendan bozkatzeko aukera izango da.

Ondorengoak dira berdinketa izan zuten bi aukerak eta beraz, hurrengo bozketako aukerak:

1. Piboteak auzoko festa egunetan eta egun berezietan jartzea errepidea itxita.
2. Piboteak ordutegi konkretu batean jartzea errepidea itxita: asteleheneretik ostegunera, 16:00-19:30 bitartean, eta ostiraletan, 16:00etan jarri eta astelehenean, goizeko 08:00etan kendu, asteburu osoan errepidea itxita mantenduta.

Emaita egunean bertan ezagutuko da.

Lorea Ilundain eta Aitor Osa zinegotziek emandako azalpenen arabera, hartzen den erabakia ez da behin betikoa izango. Epe ertainera baloratu egingo da ea aldaketak auzoari onurarik ekartzen dion, eta beharrezkoa izanez gero, Udalak erabakia aldatu ahal izango du.



EDUARDO AGIRRE ARROARRA PILOTA FEDERAZIOKO DIRUZAINA IZANGO DA

Euskadiko Euskal Pilota Federakundeko hauteskundeak izan ziren Abadiñon. 77 klubek hartu zuten parte eta 47 klubetara aldeko bozka lortuta Pilota Zazpi Haizetara hautagaitzak irabazi. Federazioko diruzain izango da Eduardo Agirre.



[ELKARRIZKETA] TXEPEXA AISIALDIA KMO ELKARTEA HERRITARREN PARTE-HARTZETIK SORTUTAKO EKIMENA

Joan den urtarrilaren 9an Txepetxa Aisialdia KMO Elkarte aurkeztu zen. 2024an OinHerri elkartearekin eta Ezkaiztoarekin elkarlanean auzoak garatutako partaidetza-prozesu baten emaitza da elkarte hau.

Prozesu horretan zehar, Arroabeko eragileek auzoko beharrak identifikatu eta hainbat lantalde sortu ziren. Talde horietako bat Aisialdia KMO izan zen. Arroabean aisialdiko eta denbora libreko jarduerak sustatzeko sortu zen eta horren emaitza izan da aisialdi-taldea.

Nola sortu zen Txepetxa eratzeko ideia Arroabean izandako parte-hartze prozesuan? Nortzuk zarete sortzaileak? Aurkeztu zuen burua:

Txepetxa Aisialdia KMO Elkarte, Arroabean izandako parte-hartze prozesuan sortu zen ideia da. Herrian aisialdi elkarte bat sortzeko beharra identifikatu genuen, auzoko belaunaldi ezberdinen artean harremanak eta elkarlana sustatzeko. Prozesu horretan, herriko eragile desberdinek elkarrekin lan egin genuen aisialdiaren arloan, eta elkartearen sorrera, batez ere, Udalaren eta OinHerriren laguntzari esker gauzatu ahal izan da.

Sortzaileok, gazteak izanik, prozesu parte-hartzailean parte hartu genuen, eta elkartearen sorreraren arduradunak Ane Guridi, Eliane Ruiz eta Jaione Aristondo gara.

Zergatik iruditu zitzaizuen garrantzitsua proiektu hau auzotarrek, auzotarrentzat sortzea?

Lehenik eta behin, herriko beharrak eta interesak hobeto ulertzeko aukera ematen du, hala nola aisialdiaren alorrean dauden hutsuneak edo aukerak.

Bestetik, herriko eragile desberdinek elkarrekin lan eginez, bizigiroan eragina izan nahi dugu eta herriko giroa hobetzea lortu nahi dugu. Herritarren parte hartzeak, elkartearen jarraipena eta etorkizuna bermatuko ditu, izan ere, euren beharrak eta nahiak zuzenean entzun eta errespetatu nahi dira.

Azkenik, proiektu honen bidez, herrian sortzen diren dinamika berrietan, gazteek eta herritarrek elkar ezagutzeko eta elkarrekin aritzeko aukerak bilatuko dira. (...)

(Elkarrizketa osorik irakurtzeko sartu gure webgunean)



2026KO URRIRAKO ARROABEAN KARMENGO AMAREN ERREPIDEA ETA AUZOA LOTUKO DITUEN IGOGAILUA MARTXAN IZANGO DA

Urtarrilaren 9an, Arroabean Udalak deitu zuen auzo-batzarrean, San Isidro kalea eta Karmengo Amaren errepidea lotuko dituen igogailuaren proiektua aurkeztu zen.

Lorea Ilundain zinegotziak azaldu zuenez, Udalaren asmoa hiri irisgarriago baterantz lan egitea da. Kezka hau, auzotar batek adierazi zuen aurreko urtean Udalak deitutako Auzo-zaintza proiektuko bileran. Arroabeko goiko aldean bizi diren bizilagunak adinean gora doaz, tren geltokia ere bertan dago eta errepideko trafikoa ugaritu egin da. Hori horrela, eta bi gune hauen arteko loturak duen desnibela ikusirik, irisgarritasunaren ikuspuntutik auzoko "gune beltzena" hori zela nabarmendu zen bileran. Diru-laguntza bat tarteko, proiektu honi lehentasuna ematea erabaki du Udalak. 2025ean hasiko dira lanak eta 2026ko urrirako amaituta egotea aurreikusten da. Egingo diren lanen artean, igogailua eraikitzeaz gain, San Isidro eta Marduxarra kaleak elkartzen dituen espaloia zabaltzea izango dira. Kale beretik, Karmengo Amaren errepidera igotzeko eskailerak berrituko dira eta bertan, autobus geltokira iristen den eremua ere zabaltzeko egingo da.



DANBOLINEKO WHATSAPP-EKO KANALA SORTU DUGU

Herriko berri jakin nahi WhatsApp bidez?

Jadanik jarri dugu martxan Danbolineko WhatsApp-eko kanal berria. Bertan herrian izango diren jardueren berri emango dugu.

zaintza bada mutil gazteen kontua

Gazte-gazteak dira, 18 eta 20 urte bitartean dituzte. Denak zestoarrak. Aitor Errasti Olaizolak Gizarteratzea titulua aterako du aurten. Goi-mailako ikasketak dira, bi urtekoak. Aurrez, erdi-mailako titulua

DANBOLIN-EKO AFARIAN NORBAITEK ESAN DIO PERURI: “AIZU, GOIKO EGOITZAN HERRIKO MUTIL GAZTE BATZUK OMEN ZABILTZATE LANEAN. HALA AL DA?” . ETA PERUK BAIETZ, BOST GAZTE DIRELA ZAINZA ETA GARBITASUN LANETAN ARITZEN DIRENAK, BERA TARTEAN. AFALTJARROI EGOKIA IRUDITU ZAIGU ERREPORTAJEA EGITEA DANBOLIN-ERAKO. ORDEA, AIPATU DUGU SARRI EMAKUMEZKO LANGILEEI EZ DIEGULA BEHAR BESTEKO PROTAGONISMOA EMATEN, ETA EZ OTE DEN GEHITXO GIZONEZKO BOSKOTE HONI OIHARTZUNA EMATEA. PENTSATU DUGU, ORAINDIK, GIZARTE MATXISTA HONETAN, EZOHIOA DELA GIZONAK ZAINZA LANETAN ARITZEA, ETA HORRETAZ HITZ EGITEAK MEREZI DUELA. BADA, PERU, AITOR, IKER, UNAI ETA ANDERREK KONTATU DIGUTE ZER AURKITU DUTEN SAN JUAN EGOITZAN.

atera zuen: Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretra teknikaria. “Arreta” deitzen diote beraien artean, motzago esatearren; geriatría laguntzaile izateko balio du, egoitzetan eta etxeetan zaharren zaintzan aritzeko, ez ospitaleetan. Gizarteratzea, berriz, lotuago dago adin gutxiagoko pertsonak artatzeko hala nola, buruko gaitutasunak dituztenak. Adibideak ematen hasita Gauteña, Gureak eta Atzegi moduko erakundeetan lan egin ahal izaten dute Gizarteratzea egiten dutenek. Bostak oso antzeko ikasketak ibilbidea egiten ari dira. Peru Gartzia Astillerosek eta Iker Eizagirre Gomezek Aitorren ibilbide bera egin dute. Gizarteratzea bukatzen ari dira. Peru, gaur egun, goizez ikasten ari da, eta era berean, San Juan egoitzan langile finkoa da. Arratsaldetan doa lanera. Unai Olaizola Reza balek Elgoibarren egin du “Arreta” eta orain Genero berdintasuna, bi urteko goi-mailako ikasketak bukatzen ari da. Ander Alkorta Agirrebengoa da bostetan gazteena. “Arreta”ren bigarren ikasturtea egiten ari da Azkoitian.

EZ ZEUKATEN ZAHAR ETXEETAN LANA EGITEKO ASMORIK, BAINA...

Izan gaitezen zintzoak. Bostetako inork ez ditu arretra teknikari izateko ikasketak egin zahar egoitzan lan egiteko nahia zutelako. Inork ez zituen zahar

egoitzak buruan. Unai di-da batean azaldu digu bosten egoera: unibertsitateko ikasketak egin nahi dituzte, baina batxilerra ez dute egin nahi edo ez dira ondo moldatu. Beraz, gizarte alorrean goi-mailako moduluak edo unibertsitateko ikasketak egin nahi badituzte, “Arreta” ikastea gomendatzen diete. Joan dira Azkoitia eta Elgoibarra ikastera, eta praktikekin egin dute topo. Denek egin dute praktikaldia San Juan egoitzan, eta batzuk langileen oporretako ordezkapenak ere egiten ari dira. Han gora joan direnean, ate bat ireki zaie muturren aurrean, erabat ezezaguna zitzaiena. Inguruan esaten dutenean tarte lanera joaten direla egoitzara, ezezagutzak eta batzuen mespretxu dosiak eraginda, entzun behar izaten dute esaldi hau: “Ze, zaharren ipurdiak garbitzera?”. Horretara, eta beste gauza asko egitera. Esan dugu egoitzetan lana egiteko asmorik gabe egin dituztela “Arreta” ikasketak bost mutilek, baina ezin da esan arrainak basamortuan bezala dabilzanik. Denak dute gustuko pertsonekin lana egitea, hala esan digute. Aitorrek irakasle izan nahi du; Anderrek ere bai, eta umeak asko gustatzen zaizkio. Azken hau gaur egun tabernan ari da lanean, baina garbi dauka bi lanak egoiak direla beretzat: “Biak gustura egiten ditut”. Ikerrek ere pertsonekin egin nahi du lan, “ez makina baten aurrean”. Gehiago zehaztu du bere etorkizunerako nahia: harrera etxeetan egin nahi du lan. Peru hain gustura dabil egoitzan lanean, erabaki baitu selektibitatea prestatu eta erizaintza egingo duela. Oso gustura daude bostak egoitzako esperientziarekin. Aitorrek dio

ez duela uste bizitza osorako lana izango denik zahar egoitzakoa, baina orain, ikasketek lehentasuna badute ere, “ez dut baztertzeko honetan aritzea, kristoren lan polita da”. Ikerrek egoitza eta etxez etxeko zaintza probatu ditu, “eta konturatu naiz biak gustatu zaizkidala”.

HERRIKOAK, GAZTEAK, ETA MUTILAK

Ez zaie gustatzen jendeak “ipurdiak garbitzea” adierazpidearekin laburbiltzen duenean egoitza langileen jarduna. Ados daude gutxienekoa dela, horren aldean gauza zailagoak eta gogorragoak asko daude zahar etxe batean. Estres momentuak aipatu dituzte, denekin egon nahi eta ezin. Peruk aipatu du gogorra dela karinoa hartu diozun egoiliarra hiltzen denean, adibidez. Lan gogorra bai, “beste lan asko bezala” dio Peruk, baina asko betetzen duela ere esan du, “are gehiago, gu gazteak eta mutilak izanda”. Bostekin egon garen ordubetetxoan etengabe azpimarratu dituzte langileen eta egoiliarren artean sortzen diren hartu-emanak. Beraien ustez, egoiliarrek poz-pozik hartzen dituzte bost gazteak. Unaiak hala dio: “Nobedatea gara, freskura”. Izan ere, beste bi gazte kenduta, gainerako guztiak 40 urtetik gora dituzte eta emakumeak dira; bost mutil hauez gain bi gizon baino ez dira ari zaintza lanetan. Peruk ere uste du bizipoza direla San Juango bizilagunentzat: “Egoiliarrek ohituta daude urte asko daramatzaten langileekin, eta agian, dagoeneko ez daukate elkarri gauza asko kontatzeko. Gu gara gazetetasuna, poztasuna, energia... parrandara goazela ere kontatzen diegu!”. Unairen ustez, egoiliarrei poza ematen die mutil gazteak lanean ikustea, “eta oso harreman politak sortzen dira gure artean”.

BADIRA ZAINZAILA EMAKUMEZKOAK NAHIAGO DITUZTEN EGOILIARRAK

Zaintza pertsonala egiterakoan, mutilek ez artatzea eskatzen duenik baden galdetu diegu, eta baietz erantzun dute. Unaiak hala dio: “Bizitza osoan emakumeak ikusi dituzte zaintzen eta haiek ere zaintza behar izan dutenean emakumeek zaindu dituzte. Bat-batean mutil bat ikusten dute zaintza lanean eta harritu egiten dira. Ez dute nahi haien zaintzaz arduratzea. Batez ere adin oso handikoekin gertatzen da”. Peruk beste faktore bat gehitu du: “Adina baino kristautasuna barneratuta daukatenean dela esango nuke. Gorputza erakusten ohituta daude, medikua dator, langile askoren eskuetatik pasatzen dira... baina kristautasuna oso

PERU GARCIA:
“PERTSONEKIN LANA
EGITEA GUSTUKO DUTEN
GIZONAK ANIMATZEN
DITUT HORRELAKO
LANAK PROBATZERA.
GIZONEK ERE EGIN
DEZAKEGU”



► argi baldin badaukate, esaten dute: 'Mutil batek ni ikusi? Ez, emakume batek lagunduko dit'. Orain arte emakumeek eskatu dute mutilek ez artatzea momentu intimoetan, gizonekin ez zaie halakorik gertatu. Gizonen batek bestelako komentarioren bat egin du, Anderrek behintzat aditu du: "Ze, neska-lanean jarri al haute?". Eta kazetariak galdetu die ea erantzuten duten. Peruk eta Unaik diote baietz, erantzuten dietela: Unaik dio ez direla neska-lanak: "Lehen neskentzat bideratuta zegoen, baina gaur egun ez dauka zertan horrela izan". Eta Peruk gehitu du: "Ni egiten ari banaiz, dagoeneko ez da neska-lana. Kostatzen zaie hori ulertzea". Jakin nahi genuen ea haien lana gaizki egiten dutela aurpegiratzen dieten mutilak izate hutsagatik, eta ezetz diote: "Behin gu onartuz gero, ez dute ezer esaten. Egoiliarren batek ez badu nahi gizonzkoek artatzea langile emakumeak egiten du lan hori, eta kito".

ONDO TRATATUAK SENTITZEN DIRA

Kontatu digute nola sentitzen diren egoiliarrekin.

Ezin esan harremanak zailak edo txarrak direnik, mutilak direlako. Lankideekin ere oso ondo moldatzen dira, bai egoitzan eta baita eguneko zentroan ere. Unaik gogoan du emakume bat eta hiru mutil eguneko zentroan lanean ari zirela emakumeak harrিতuta esan zuena: "Lehenengo aldia da emakume bakarra naizela!". Langileen arteko giro ona nabarmendu dute, oso ondo hartuak izan direla, eta beti laguntzeko prest daudela. Gauza bera dio Anderrek. Oraindik "Arreta" ikasketak bukatu ez dituenek, ezin ditu geriatria laguntzaileko ordezkapenak egin, baina garbitasunean aritu daiteke, eta talde horretako langileek oso ondo tratatzen dutela dio.

Egoitzan ondo, beraz. Alabaina, lagunartean eta familian zer diote San Juango lanaz? Bik etxetik abantaila dute, Peruk eta Anderrek, hain zuzen ere. Bien aitak dira geriatria laguntzaileak. Bigarrenaren aitak San Juanen bertan egiten du lan. Etxeren batean harritu egin dira semea zahar egoitzan lanean ikusi dutenean. Horixe gertatu zaio Ikerri: "Harritu egin ziren, oso txokantea egin zaie. Galderak egiten dizkirate: Zer moduz zabilta? Zer egiten duzu hor?". Peruren senide batzuek kezka edo zalantza moduan bizi dute bere lana: "Haien galdera da, 'mutil hau ondo egongo al da horrelako toki batean?'".

Bostak ados daude zahar egoitzak eta han egiten den lana ez direla ezagunak, batez ere gazteentzat, eta horretaz gain, prestigiorik ez dutela lan horiek. Lagunartean aipatu dutenean San Juanen ari direla, hala sumatu dute. Aitorrek le-



Aitor Errasti
Unaí Olaizola
Ander Alkorta
Iker Eizagirre
Peru Gartzia

hen esan dugun adierazpena ekarri du gogora: “Lehenengo entzungo duzun gauza da: ‘Ni ez niak aittitta bati ipurdia garbitzera’”. Anderrek gehitu du: “Kuadrillan bromak hortik datoz”. Peruk badaki noiz aldatzen den jendearen iritzia: senideren bat egoitzara eramaten dutenean. Orduan, etxea barrutik ezagutzen dute eta espero ez zuten zerbaitekin egiten dute topo: “Ikusten dituzte egoitzan egiten diren ekintza guztiak, dela Olentzero, bandaren eta abesbatzaren bisitak, erromeriak, eskolako umeekin egon... Ikusten dute zein pozik dauden egoiliarrek, eta iritzia aldatzen dute”.



EZEZAGUTZAK eta BATZUEN MESPRETXU DOSIAK ERAGINDA, ENTZUN BEHAR IZATEN DUTE ESALDI HAU: “ZE ZAHARREN IPURDIAK GARBITZERA?”

ZERGATIK ZAUDETE MUTIL GUTXI?

San Juan egoitzakoa ez baita salbuespena. Jakina da zaintza lanetan gizonetakoak urri baino urriago direla. Galderari saskon erantzun dio Unaik: “Jendarte kapitalista-matxista hau beti arduratu da emakumeek zaintza lanak egin ditzaten etxean, eta gero etxetik kanpo. Lanik prekarioenak emakumeentzat izan dira. Gaur egun zaintza lanak kobratzen dituzte, baina etxean doan egiten dute. Zaintza sektore prekarizatu eta feminizatua da. Gizarteari interesatzen zaio horrela jarraitzea: emakumeak lan prekarioetan, eta ez goi-karguetan”. Peruk argitu nahi izan du ez dutela uste San Juango lan-baldintzak prekarioak direnik, bai ordea beste zahar etxe ugariatxoak. Behin baino gehiagotan esan dute bostek zorteia izan dutela San Juanen lanean aritzeko aukera izan dutelako.

MUTILEI DEIA GUSTUKO IKASKETAK ETA LANAK EGIN DITZATEN

Azkoitian, “Arreta” eta Gizarteratzea ikasketetan mutil ugari ari direla azpimarratu dute herri horretan ikasten ari diren lau mutilek. Aldiz, Unaik dio Elgoibarren ez duela halako gorakada handirik sumatu mutilen kopuruan. Aldeak alde, denak ados daude zerbait aldatzen ari dela, eta pixkanaka gizarte alorreko ikasketetan gero eta mutil gehiago daudela. Deabruaren abokatuarena egin eta galdetu diegu ez ote den mutil-kopuruaren igoeraren arrazoia lehen aipatu duguna, hau da, batxilerra egin gabe unibertsitatean sartzeko aukera ona izatea. Inork ez dio baietz esan kazetariari. Benetan aldaketa sumatzen dute gazte hauek.

Beraiek oso gustura ari dira ikasten, baina irakasleei eskaera bat egin diete: praktika gehiago egoitzetan, hango errealtatea gehiago gerturatzea ikasleei. Aitorrek dio zaila dela egoitza bat zer den ulertzea han bertan egon gabe. Unaik dio irakasle bat baino gehiago inoiz ez dela egoitza batean egon. Peruk mutil gazteentzako mezua dauka. Bere ustez, ohikoa da batxilerrean gustura ez dauden mutilek industriarekin, mekanikarekin edo tailer kontuekin zerikusia duten erdi-mailako ikasketetara jotzea. Batzuetan ez dituzte gustuko gai horiek, baina ez dira ausartzen bestelako ikasketak aukeratzten: “Tailerrean lanean urteak pasa dituen lagun bat daukat. Orain Gizarteratzea ikasten ari da. Esaten du pertsonekin lan egitea gustatzen zaiola eta horretarako balio duela. Baina kontua da, halako mutilak, askotan, ez direla ausartzen gustuko lana aukeratzten. Gizonek ez daukate zertan gustuko ez duten tokian lan egin. Pertsonekin lan egitea gustuko duten gizonak animatzen ditut horrelako lanak probatzera, egoitzan lana egiteak ez dauka ezer txarrik. Etxean etxeako zaintzen ditugun bezala, egoitzan egoiliarrek zaintzen ditugu. Gizonek ere egin dezakegu”.

onintza irureta azkune

IRAGOTIA



Familiaren arabera, semeak jai duenean justu lanean ere orduantxe izaten dugu lan gutxiena eta ondo etortzen da; Aste Santuan egun batzuk, abuztuan eta gabonetan, gutxi gorabehera.

Txixu Arakistain
55 urte



Urteko opor egunak aukeratzeko, normalean hegaldiaren prezioei begiratzen diet. Prezio onenak aurkitzen ditudanean hartzen ditut, horrela bidaiaria merkeagoa izaten delako.

Eguzkiñe Martin
53 urte



Lanean opor egun batzuk aurrez ezarrita ditugu, udarakoak, gaboneta-koak eta Aste Santukoak. Nire kasuan, jai hartze-ko geratzen zaizkidan egunetan, kanpoan bizi den lagun bati bisitatzera joateko, bikotearekin oporretara joateko edo Zestoako festak ospatzeko aprobetxatzen ditut normalean.

Xuban Albizu
27 urte



Ba nik umeekin egiten det lan garraioan eta horien arabera opor egunak izaten ditut.

Miriam Mantzisor
36 urte

zeren arabera HARTZEN DITUZU URTEAN ZEHAR zure OPOR EGUNAK?




(Erantzuleak guztira: 101)



- Lagunen edo familiaren arabera
- Jaien arabera
- Lantokiaren arabera
- Bisitatu nahi dudan lekuaren arabera



Idiazpi barrenetik estazio aldera doan bidexka parean autoak gaizki aparkatuta egoten dira askotan. Hori gerta ez dadin neurriak hartzea komeni da.



Iraetako frontoiko eskubiko aldean, itxitura gardena jarri dute.



Guraso boluntarioek seme-alabentzako egindako ekintza

OTSAILA ETA MARTXOKO SAIOETARAKO HELDU BOLUNTARIOAK BEHAR DITUGU

Hamaika arrazoi

- Pelikulak ikustea merezi duelako
- Neguko arratsaldeak hotzak eta ilunak direlako
- Lagunekin batera zinera joatea entretenigarria delako
- Euskaraz delako
- Gure seme-alabentzat delako



943 147 010 - 7.luz

epelian.zestoa@gmail.com




Euskara Foroak sustatutako ekintza



Kimatzeko garaia da.

Kimaketa ezinhobeak egiteko gomendio eta tresna guztiak, Kimubat Gardenen. Frutarbolen garaia ere bada. Lortu zureak!



Urrestilla bidea, z/g, Azpeitia | 943 15 00 85 | www.kimubat.eus

Taxi Zestoa

 9 Eserleku
 Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 900

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea
 605 765 140 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
 1919-2019
 Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
 e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
 www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
 Zestoa 20740

MIZU
 Hortz Klinika
 mizuclicinidental@gmail.com
 ZURINE ECHEBERRIA RENOBALDES COLEG. 797
 IDOIA ECHEBERRIA RENOBALDES COLEG. 868
 Telf.: 943 14 78 28

eskua
 Therapy Group
Fisioterapia
Osteopatia
 - 943 29 08 99 -
 Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
 EGOITZA - RESIDENCIA
 Toribio Altzaga 6 - Zestoa
 943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

Kontxi Aizarna



PARTXUELKO ETXEAN, JAIOTETXEAN HARTU GAITU KONTXI AIZARNAK, (AIZARNA, 1958). ORAIN 5 URTE PASA JUBILATUZ GERO BERTAN BIZI DA, LEHEN OPORRAK ETA ASTEBURUAK EMATEN ZITUEN ETXEAN.

GIMNASIA DUTEN EGUNETAN ZIUR IZATEN DA PARTXUELKON. BESTE BATZUETAN ZARAUZKO ETXEAN EMATEN DITU EGUNAK, ETA LAGUNARENGANA ERE JOATEN DA GASTEIZA, MAITASUN BAT ETA ETXE GEHIAGO DITUEN HARREMANEAN. TXIMINIA PIZTUTA, LIBURUZ ETA DISKOZ BETETAKO SALA BERA DA IRAKURKETA ETA BERRIKETA PATXADATSURAKO GONBITA. MAGNETOFOI ZAHARRA ERTZ BATEAN, HIZKETAN HIRU ORDU PASA ONDOREN, MARTXAN JARRI DU HAURRENTZAKO IPUINEN GRABAZIOAK ENTZUTEKO. ETXEKO BERE LEKU FAVORITOAN, ATZEALDEKO LORATEGIAN, NEGUKO TRISTURA HARTUTA DAUDE ARROSAK ETA KONTXIK ERE OROITZEN DU BISTA ZABALEKO LEKU HURA, HERRIKO SARRERA IKUSTEKO TALAIA. ESKOLA AURREZ AURRE DU ORAIN, ORDEA. HARI BEGIRA HASI GARA UME KANTUEZ, HEZKUNTZAZ ETA PEDAGOGIARI BURUZ. 1977AN HASI ZEN IRAKASLE ZARAUZKO IKASTOLAN. LAUZPABOST URTERA, HAN BAIMENA HARTUTA, BURU-BELARRI JARDUN ZUEN XIRULA MIRULA MUSIKA ESKOLAN; MATERIAL DIDAKTIKOA ETA IMANOL URBIETA BIKOTEKIDE ZENAK SORTUTAKO ABESTIAK HAURREKIN LANDU ETA DISKOETAN GRABATZEN.

Entzuten al dituzu etxetik haurrak zuek sortu eta zabaldutako kantuak abesten?

Bai, beti-betikoak. “Ran Roberran”, “Txoria nintzela”, “Astoa ikusi nuen”, Txiki txiki txikia”, eza-gunenak, baina askoz ere gehiago daude.

Azaroan Orioko herri ikastolan eta Gasteizko Olabide ikastolan haur txikiekin abesten eta kontalari aritu zinela ikusi dugu ikastetxeen sare soziale-tan. Maiz egiten al dituzu halakoak?

Oriora ilobaren alaba jasotzera joaten naiz eta eskatu egin zidaten eta Gasteizen lagunek eskatuta lau saio egin nituen. Tarteka egiten ditut.

Desberdina al da irudietara txikitatik ohitutako umeekin jardutea?

Bai, arreta jartzea askoz ere gehiago kostatzen zaie, eta segituan aspertu egiten dira. Baina beraien behar emozionalak berdinak dira, hori ez da aldatu. Niretzat bokazioa izan da hezitzaile izatea, satisfazio asko eman dizkit. Gogorra baina ederra.

19 urterekin ikastolan 5 urtekoekin andereño hasi, gero musika eskolan ikasle, eta segituan irakasle. Gerora egin zenituen irakasle ikasketak. Nolakoa izan zen 80ko hamarkada hasiera?

Orduan ez zegoen ezer, dena sortzeko zegoen. Ni ikastolan hasi eta Idurre izeneko neskatila batek

txirula jotzeko eskatu zidan, eta ez nekiela esan nion. Andereñoa izan eta ez dakizu! Eta musika eskolan eman nuen ize-na eta han ezagutu nuen Imanol, eta hasi nintzen umeen musika munduan. Gogoan dut behin batek esan zuela bilera batean bere umeez gaztelaraz kantatzen zitzutela, “La Ramona pechugona” eta halakoak. Manolok esan zien berak Zarautzen ez zuela arazo hori, eta atera zuen bere karpeta, eta “nire umeez hau kantatzen dute” esan zuen. Izugarri gustatu zitzaizkien istorioa, eta orduan, Lutxi Mantzisorrek bultzatu eta egin zuen bidea hori publikatzeko. Horrela sortu zen lehenengo Xixupika.

Gero konturatu ginen eskoletan musikak ez zeukala batere lekuri garai hartan. *La María de las Marías* zen. Musika ikasi nahi zuenak kontserbatoriora joan behar zuen eta berdina zen 8 urterekin joan edo 19rekin joan.

La música es el arte de combinar sonidos y estos en el tiempo eta punto. “El solfeo de los solfeos” liburua hori zen.

Orduan pentsatu genuen eskolan zerbait egin behar genuela. Musika pertsona guztien eskubidea da; belarri onekoek, txarrekoek, ahots onekoek, txarrekoek, herrenek, ez herrenek, denek daukate eskubidea. Horrela hasi ginen Xixupikarekin. Ordurako Manolo magisteritzako irakasle zen seminarioan eta Astigarraga, Martutene eta Hernaniko eskoletara joaten zen praktikatzera, asmatzen zituen gauzak umeekin probatzera. Horrela hasi ginen materiala sortzen, eskoletan ez zegoelako.

Pentsatzen genuen eskoletan musika sartu eta behin ibilbide hori eginda bukaera izango zuela gureak.

Jarraipena izan zuen, ordea. 2000. urtean oraindik Ikastolen Elkartearekin eta Elkar argitaletxearekin materiala sortzen jarraitu genuen eta gero gure kasa ere bai. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren enkar-

guz hainbat bideo egin genituen, diskoetan zeuden kantuak irudiz umeekin jantziz. DBHko ikasleei musikaren historia irakatsi genien.

Bideo pila bat sortu genituen. Moskuraino joan ginen, San Petersburgora musikari klasikoaren biografien sailerako grabazioak egitera.

2000. urtean egin genuen sehaska kanten “Kunkun Lolo” diskoa ere.

Donostiako kultura patronatua esan ziguten gustura oparituko lieketela hirian jaiotzen ziren haur guztiei sehaska kanten diskoa gurasoek entzun eta umetxoei kantatzeko.



“MUSIKARI KLASIKOEN BIDEOAK EGITEKO MOSKURA ETA SAN PETERSBURGORA JOAN GINEN”

Diskoa aurrean daukagu. Haur jaio berri bat azalean. Hau al da ilobak, Julia Urreaga, Rural Zombieseko kantariak parte hartzen duen lana?

Bai, bera da azaleko umea, txikitana, hemen jardinean egindako argazki bat da. “Txalopin txalo” abestia nik errexitatu eta berak errepikatu egiten du. Imanolok ez zekien 14 kantuko diskoa egiten. Hemen bi dozena daude. 24koa egin genuen. Izugarria izan zen honek izan zuen arrakasta. 15.000 disko saldu ziren, gehienak udalek erositakoak ume jaioberriei oparitzeko. Araban, adibidez, kuadrilla askotatik eskatu ziguten. Tirada bakoitzean, udalaren zigilua jartzen genion.

Aitzindariak izan zineten euskarazko ume kantak sortzen. Denborak arrazoia eman dizuela esango al zenuke?

Nik uste baietz. Gaur egun aukera gehiago dago. Pedagogikoki aztertzen baduzu, ez dakit, Europara egiten genituen bidaietan gu beti liburutegi espezializatuetara joaten ginen umeentzat zer zegoen ikustera. Italiatik asko jaso genuen. Bada esaldi bat Imanolek esaten zuena: onenak gara, onak garen jakin gabe, besterik ez zegoelako. Gaur egun norbaitek, igual, harrokeriatzat hartuko du, baina nik uste dut inork ez duela gainditu oraindik umeen oinarrizko beha-

re erantzuteko pedagogikoki egindako materiala, hobetu denik ez nuke esango behintzat.

Besteei ezer kendu gabe, Ene Kantei ezer ez, Porrotzekin-eta oso ondo konpontzen naiz, eta guretik asko jan dute, aitortuta gainera. Gogoratzen naiz aurrenengo diskoa, “Takolo, Pirrutx” zen, dena gure kantekin, bertsioak, fusilajea, “Marmikel”, “Arkakusoarena” etab.



“Aran txan txan” ere bai, zuenetik?

Ez, hori ez da gurea. Herrikoia da. “Pintto pintto” ere ez da gurea.

Normalean aldrebes izaten da. Pentsatu abesti bat herrikoia dela eta egilea izatea. Gertatu daitekeen onena al da?

Hori ohore bat da. Kanta herriarena bihurtu da. Nik esaten nuen, Manolo bera oso harro dago, baina bizi bitartean gutxienez aitortu. Anekdota polit bat badaukat. 2000. urte inguruan, kurtso hasieran Donostian, Elkarren begira ari nintzen zer nobedade zeuden eta aurkitu nuen argitaletxe bateko materiala, 3, 4 eta 5 urteko haurrentzat, eta kantaz bete-ta zegoen. Herrikoia, herrikoia, herrikoia, herrikoia zirela jartzen zuen, eta %90 gureak ziren. Harremanetan jarri nintzen argitaletxearekin eta zita bat egin genuen. Etorri zen maleta batekin, nik uste dut dirua eskaintzera. Imanol asko lot-satzen zen eta alde egin zuen. Zer eskatzen genuen galdetu zigun, eta kaleratu eta zabaldutako liburuetan hutsen zerranda moduko bat sartzea eskatu genuen, kantuak halakorenak zirela esanez. “Hori bakarrik?”, eta guk: “Bai”. Ikusten duzu diruari zein lotuta nagoen. Imanolek esaten zuen, eguna bukatu, prakak kendu eta txanponak erortzean: “Begira zeinen ondo, eguna bukatu eta dirua sobratu!”.

Zuzenketa egingo zutela esan zidan, eta kontatu zidan, argitalpena egiteko irakasleak kontratatu zituztela eta haiek kantuak herrikoiak zirela pentsatu zutela. Kuriosoan izan zen; handik urtebetera edo, argitaletxeko arduradunak deitu eta esan zidan izugarritzko zorra sentitzen zuela eta zerbait egin nahi zuela. Antolatu zuen Kursaal, 2002an, sekulako jaialdia, Oskorri, Pantxo eta Pello, Egan... “Lagunak zuri kantari” jaialdia egin zen Imanolen kantuekin. Orduan atera zen “Bidea luzea da” biografia ere, Andoni Egañak idatzitakoa. Oso polita.

Imanolek omenaldi eta aitortza ugari jaso zituen, baina Xirula Mirularen diskoetan eta ez gainerakoetan, ez da Kontxi Aizarna azaltzen. Erdia behintzat mereziko zenuen, ezta? Gaur egun ez litzateke pasako?



Gizon handi baten atzean emakume handiagoa dago.

Zerbait-zerbait badaukagu bion izenean argitaratuta, kantu liburu bat, 40 kantu txiki, formaz karratua dena, eta beste batzuk. Nik liburu borobila egin nahi nuen, inon kabitzen ez zena, beti zirikatzen ari zena, hankapean. Abbadia sariaren ondoren atera zen liburuan ere, bera agertzen da baina iradokizun pedagogikoak eta nireak dira.

Ez al zara, orain, atzera begirarata, emakume ikusezina sentitzen?

Bai, hori horrela da. Atzean egon naiz. Kontziente naiz, igual harrokeriatzat har daiteke, baina badaikit Imanolek ez zuela egingo egin zuen guztia ni ez banengo, garbi daukat. Batek baino gehiagok ere esan dit. Harrotasun hori badaukat, hori egon naiz, baina injustua izan da. Orduan ohiko joera zen. Bera zen artista, nolabait. Gaur egun ez nuen onartuko. Bera hil baino pare bat urte lehenago Zarauzko Udalak atera zuen “Bakarrik eta libre”, berak rockeroen diskoa esaten zion. 14 kantu. Eñaut Elorrieta, Mursego, Petti, Lou Topet, eta Andoni Egañak egin zuen berari buruzko kantu ederrena, Pirritxek eta Porrotxek abestuta, eta Xabi Zabalaren musikarekin. Berak esaten zuen omenaldiak bizi artean egindako eskelak direla. “Zorte zurea hemen zaude eta!”, esaten nion nik. Postumoak Argia saria, Euskal Herriko musika eskolek





egindako aitortza eta “Kanonak”. Bizi guztian izan zuen lan hori argitaratzeko nahia, eta Jaurlaritzak eta Arabako Diputazioak kaleratu zuten bera hil ondoren.

Bera hil ostean bazenion nahiko zenukeela idaztea, kantuen atzeko istorioak-eta.

Ez naiz gai ikusten. Norbait hartu beharko nuke. Pentsatu, askotan pentsatu dut ipuin bat bezala idaztea. Getarian dioten bezala, epiopa (epopeia) horiek denak, baina ez. Pasatakoa pasata dago, bizitakoa barruan dago eta ez dut sentitzen beharrik. Iragana gainditu egin behar da, bizi izan duzu, ez du esan nahi ahaztu egiten duzunik, baina gaur beste puntu batean zaude. Oso puntu onean sentitzen naiz. Osasunez ondo, beteta pertsona bezala, errealizatuta esaten zen garai batean. Lo primeran egiten dut. Horrek esan nahi du ez dudala kontzientzi karga berezirik, bakean.

Musikak orain zein parte du zure bizitzan?

Ez pentsa leku handirik daukanik. Orain ari naiz entzuten egindako gauzak, inon argitaratu gabeak, ikusi zein kalitate duten, agian argitaratu. Partitura pila bat utzi zituen, ez nekien horiekin zer egin eta Zarauzko udaletxera eraman nituen eta udalak atera zuen beka bat hori klasifikatzeko. Atarrabiako neska batek irabazi zuen. Pena dut Imanolek ez ezagutzea Itziar bizi zen artean. Berak esaten zuen mirlo edo zozo zuri horietako bat. Egin zuen inbentario bat eta 3.000 kanta zerrendatu ditu dagoeneko. Berak digitalizatu egin zituen eta bere helburua zen publiko egitea, webgunearen batean edo. Itziar Lopez de Ciriza, Iruñean musika irakaslea da. Berak doktore tesia ukeleleaz egitea pentsatua zuen, baina erabaki du Imanol Urbietaz egitea. Sekulako la-

**“PENSATU IZAN DUT,
EPIOPAK, GETARIAN
ESATEN DUTEN BEZALA,
EPOPEIAK IPUIN ERAN
IDAZTEA”**

na ari da egiten. Ez dakit inoiz gauzatuko den. Uste dut beste urtebeterako edo baduela.

Ganbaran hainbeste urtean

egon den materiala berrikusten ari naiz, berari laguntzeko. Bakarrik irratirako egindako kantu, ipuinak etab daude. Herri Irratian eta Euskadi Irratian umeentzako saioak egin genituen 80ko hamarkadan. Gogoan dut irratsaioetako batean, hortz kontuez aritu ginela eta esan genuen hortza hartuta estudiora etortzen zenari oparia emango geniola. Getariatik etorri zen ume bat eroritako hortza hartuta. Orduko oroitzen txikiak biziberritzen ari naiz.

Imanolek esaten zuen bera ez zela poeta, ez zela musikari berezia, umeei egoera zehatzetan erantzuteko behar zituela kantak eta momentuan sortzen zituen. Irakasle eskolan zegoenean seminarioan, sekulakoak egiten zituen. Behin eskola atarian asto bat zegoen lotuta eurlan blai eta ez zuen gelara igo *de milagro*. Ikasle guztiek astoa han ikusi, lotuta, blai, eta erantzun bat behar zuela uste zuen, kantu bat edo... berak, astoa gelara ere eramango luke. Horrelako erokeriak asko egin zituen. Realak liga irabazi zuenean ere, gaia landu egin behar zela uste zuen. Sei urteko ume batek esaten dizu “atzo Real txapeldun, gure aita etorri zen sekulako mozkorra harrapatuta” eta Manolok segituan “honek kantu bat behar du” eta hasten zen “Aupa Real aupa aupa Alavés. Aupa Osasuna beste ekipo euskalduna...” Artista bat zen.

Musika asko entzuten al duzu?

Orain entzuten dut musika. Gaur egungoa kosta egiten zait, lehengoan geratu naiz gauza askotan, beste

melodia batzuk, klasikoak. Ez dut asko jartzen. Biniloak jartzen ditut. Kaseteak bota egin nituen. Batzuetan etxea garbitzeko musika martxoso bat jarri eta badirudi azkarrago egiten duzula. Hemen, jubilatuek gimnasia egiten dugunean, musika jartzen digute. Tzunpa-tzunpa horietakoa, azkarra.

nagore telleria



Iraetako santainesak



BURZU

URTARRILA

29 ASTEAZKENA

18:30ean "Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia" hitzaldi-dastaketa Alonderon.

31 OSTIRALA

Nerabeen parte hartze prozesuaren inguruko bilera, 19:00etan, Alonderon.* 22:30ean Portaleko mus txapelketa. Izen-ematea 22:00etan (30 euro bikoteko).

OTSAILA

01 LARUNBATA

Santa eskea Lasaon. Goizetik hasiko dira baserriz baserri kantari eta tartean bazkaria egingo dute Lasaoko elkarteetan. Bertsolariak: Egaña eta Mantxi. Trikitilariak: Iraitz eta Unai. Santa eskea Aizarna. Guraso eta eskolak elkarrekin egingo dute ibilbidea baserriz-baserri eta eguerdian elkarteetan bazkalduko dute. *18:30ean, Bloñ eta Jai/egun taldeen kontzertuak, gaztetxean.

02 IGANDEA

18:30. Maialen Lujanbioren "rr_6_erre (AH)ala" errezitaldi poetiko-bertso-performatiboa, Alonderon.

04 ASTEGARTEA

Santa Ageda bezpera Zestoan. 8:45ean hasiko dira kantuan Ondarbaso baserrian. Etorra eta Sastarrain bailarak egingo dituzte, goizean. Bazkal aurretik Gisasola egoitza egingo dute eta Laranjadiko tabernak ere bai. Bazkalondoren, Akoan ibiliko dira eta 17:00ak aldera San Juan egoitzara joango dira. Jarraian, kaleak eta gainontzeko tabernetatik pasako dira. Bertsolariak: Aitor Salegi, Gorka Olaizola eta Danel Olano.* 17:30 Arroabeko San Isidro kalearen erabilerari buruzko bigarren bizketa. * "Kursaal eskura" egitasmoaren baitan, Jordi Savall & Le Concert des Nations-en kontzertura joateko autobusa aukeran.

09 IGANDEA

IX. Kobaz-koba Trail Lasterketa. Zaldei ibilbideko korrikalariak goizeko 9:00etan irtengo dira, eta Artzei ibilbidekoak 9:45ean. Bi probak plazan hasi eta amaituko dira.

12 ASTEAZKENA

Zestoa eta Aizarnazabalgo jubilatuek eta pentsiodunak Petritegira irteera.

15 LARUNBATA

11:00 Basauriko Eskarabileraren festa. * Eskualdeko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak. 11:30 hitzaldia, 14:30 bazkaria. 17:00 Asanbladen arteko olinpiadak, kiroldegiko aterpean. Ondoren, baflepoteoa. 22:00etan kontzertuak: Habemus Papam, Ekintza 16, Jipotuak eta Dj M&M.

21 - 23 ASTEBURUA

Iraupen eskia egitera irteera Somportera Agiro Mendi Klubak antolatuta.

27 OSTEGUNA

17:00 "Etiketek ezkututzen dutena" hitzaldia, Alonderon. *Ertxiña Musika Eskolaren kaldereroen irteera.

WASAHARARAKO JANARI

BILKETA. Otsailaren 3tik 7ra, Zestoako hiru eskoletako sarreretara janaria ekartzeko deia egin dute, Arroabeko eta Aizarnako eskola txikietara eta Zestoako Ikastetxera. Herriko dendetan ere elikagaiak uzteko txokoak egongo dira otsailaren 1era arte. Horrez gain, otsailaren 1ean, udaletxe azpiko arkupetan janaria eta bestelako produktuak jasotzeko bilketa egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

ARROABEKO VII. IPUIN LEHIAKETA

Ezkaizto auzo elkarteak antolatu du, Arroako eskolaren laguntzaz. Haurrak hiru mailatan banatuta egongo dira: L.H. 1-2, L.H. 3-4, eta L.H. 5-6. Eta DBHtik gora auzotar guztiak helduen mailan parte hartu ahal izango dute. Maila honetan derrigor agertu beharreko esaldia: "Une horretan jabetu da/zen: sentimendu hori betirako izango du/zuen berekin". Orrialde bateko lanak izan behar dute. E-mailez jasoko ditu antolakuntzak, ipuinakarroa@gmail.com helbidean. Martxoaren 7a izango da ipuinak aurkezteko azken eguna.

HARUR eta GARTEENTZAKO OTSAILERAKO ESKAINETZA

04 edo **05:** Arratsaldeko 16:45ean edo 18:00etan sukaldaritza tailerra San Blas opilak 2. zikloa.

06: Sukaldaritza: San Blas opilak 3. zikloa

07: "Elikagaiak ezkututzen dutena" janari dastaketa DBH

20: Bilarra 3. ziklokoak

21 eta **22:** Inauteriak prestatzea DBH

BARBANTXO:

Herrigunean HH: otsailak 5 eta 19 (17:00, gaztelekuan)

Herrigunean LH: Otsailak 7 eta 21 (17:00, gaztelekuan)

Aizarna: otsailak 7 eta 21 (17:00, kultur etxean)

Iraeta: urtarrilak 31, otsailak 7 eta 21 (17:00, Iraetako elkarteetan)

TXEPETXA:

Arroabeko Elkargunean urtarrilak 31, otsailak 14 eta 28. HH 17:00-18:00 eta LH 18:00-19:00.

ePELIan:

Otsailak 2, 9, 16 eta 23 kultur etxean.

KONTAIDAZU IPUIN BAT

Otsailak 4 eta 18an 17:30ean liburutegian.

ePELIan saioetarako boluntarioak behar dira. Igandetako saioetako bost txanda betetzeko boluntarioak behar dira. Zehazki, martxoak 2, 16, 23, 30 eta apirilak 13rako. Idatzi ePELIan.zestoa@gmail.com helbidera.



FERREGI

BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez Joan Fernandez
695 721 015 690 108 996 667 537 892

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015

Fabrizi Olasua
943 148 428

unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

kerala
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA